

Goibekokale



Elgetako aldizkaria azaroa 62zk.

Adi! Datorren
astetik aurrera
Goibekokalez
gain, bailarako
informazio
guztia
zure eskura.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Biolentzia eta bide aukeraketa

Azkenengo alean *S. Intxortak* biolentzia eta aukera politikoeri buruzko iritziak azaldu zizkigun eta nere ustez han esandakoak merezi dute aipamenik, gai larri, garrantzitsu eta sarri nahiko txarto nahastuak izaten diranez.

1) Biolentziaren erantzunkizuna: Hemen eta edonun, indarkeria erabiltzen duena da horren erantzule bakarra. Tortura edo preso urrunzearen arduradunak Gobernua eta Guardia Zibila diran modu berberean, hilketa, bahiketa, extorsio eta beste hainbat basakeri egiten dituztenak dira ankerkeri horien erantzuleak. Egoera, sentimentu eta asmo asko egon daitezke gizabana-koak ekintza politikoan mugi arazteko, Espainiaren batasuna, terroristen ganako mendeku nahia, independentzia, sozialismoa, edota "PNVek norberak nahi duena egin ez izana". Baina biolentzia erabiltzearen aukera indarkerizaleak egiten du eta ez beste inork.

2) Abertzaleen bideak: Herritar arrunt eta erdi informatu bezela, *S. Intxorta* jaun edo andeari atseginez azalduko nioke hainbeste arduratzen duan EAJren jokatubidea, publikoa baita: "Gaurko egoera politikotik abiatuz Euskadiren burujabetasuna Europar Batasunean lortzeko bidea jorratzea, giza eskubideak eta aukera politiko guztiak errespetatuz, gizartea kohesionatuz, herritarren adostasuna lortuz eta Lurralde bakoitzaren izaera kontutan hartuz". Zuzen edo oker, gustokoa izan ala ez, beti ere proiektu errespetagarria, demokratikoa eta inolaz ere biolentoa.

Ezker abertzaleak ere eskubide osoa dauka nahi duena proposatzeko baina ezin daitekera onartu zera da, biolentziaren ardura EAJri leporatzea ezker abertzalearen asmoe-kin bat ez datorrelako.

Azkenik, euskal politikoen (ezker abertzalekoak barne?) eta mila milioen kontu horri buruz, irakurle-eri barrea eragiteko txiste txartzat hartu beharrean nago. Honek bai aipamenik ere merezi ez duela.

Eduardo Zubiaurre

Erdittik, eskiñako bateronbati

Erdi ez biolentotik, salto egin bihar ei dot, eskiñetako bidiak planteatzen daben soluzino biolentot bati batzeko. Posizionau egin bihar naiz, eskinetako onenakin, txar danak ez dira berdinak eta.

Ez dot uste, izenik emoten ez dabenak, iñoi ezertan posionatzeko beste aurpegi eukitzia ondo dagonik. Izenik ez emotia ez posionatzian parekua da eta.

Batzun antzera pentsatzen dot. Baina helburuak lortzeko, horretako batzuk jarraitzen dittuen bide justifikaezñek eta bestien jarrera ez partehartzailliak, erdixan egotera bihartzen nau. Bittartian, badare helburuen alde lan egitteko moduak.

Oxel Erostarbe Tubilla

Oharra

Hau ohartxuau pare bat gauzatxo esateko baiño ez:

Batetik, argi eta garbi laga gura dogu *S. Intxorta* moduan firmau zebana *S. Intxorta* moduan agertu bihar zala nahiz eta halan agertu ez aurreko zenbakixan. *S. Intxorta*, bere idatzixa ezizen batekin firmatzixa gura izan daben pertsona bat da eta gaizki ulerturen bat egon bada barkamena eskatzixa gura giñuke. Dabilenai pasatzen jakozen gauzak...

Bestetik, gure aldizkari-xan irakurriko dozun moduan Goiena komunikazio zerbitzuaren egitasmua aurre-ra doia nahiz eta oiñ dala hilla-bete batzuk telebista ikusteko aukeria egongo zala esan eta oindiok ikusi ez. Udaletxiak hitzarmena sinatziaz bat ikusiko dogu.

Horren kontrara, Elgetarrok zoriontzeko moduan gare. Danon artian abenduaren batetik aurrera gure baillarako barrixak jasotzeko modu barrixa be euko dogu: Astero, euskeraz, baillarakua eta debalde.

Zorionak Elgetar guztioi! Danon artian aurrera etarako dogu eta.

Goibekokaleko erredakzio kontseilua

ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.



AENOR


ER

Empresa Registrada

ER-0714/2/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Lan-istripuak

Aurtengo urtea zorit-xarrekoa dugu lan-istripuei dagokienean eta horretxek eraman nau errelexio txiki hau egitera.

Datuak kezkarriak dira: ez dakit, berez, gero eta lan istripu gehiago gertatzen direlako den, edo eta gehiago salatzen direlako, baina komunikabideetan sarritan agertzen da honelako konturen bat. Elgetan bertan, zenbait istripu izan dira eta larriak gainera.

Milaka arrazoi ezberdin aurki ditzakegu nekeak jota, pisu astunak mugitzen... alturako lanak edo eta mehatzaritza... eguraldiak ere bere eragina badu: garraiolarien kasuan, arrantzan... baina beti inguruko zerbaiten errua izan ohi da.

Eta guk? Zuzen jokatzeko al dugu? ez beti. Gizakiok naturaz alferrak garen heinean beti komodidadearen bila gabilta. Hortxe has-ten da gure gaitza. Adibide gisa honako hauek:

-Makina batetan aldaketak egiterako orduan edo piezak manipulaterakoan errazago baldin bada seguritate neurriak tranpeatzea horixe da egingo duguna.

-Etxegintzan kaskoak beroa ematen badigu, edo are larriagoa, arnesak traba egiten badigu ez dugu erabiliko.

Momentuan okurritu zaizkidan bi kasu konkretu baino ez dira baina nere ustez errealtatean honelakoak barra-barra aurki daitezke.

Askotan geure buruan konfidantza handiegia dugu eta guri ez zaigula gertatuko uste dugu.

Bestalde argi dago lan baldintza egokiek eta segurtasun maila egokiek asko laguntzen dutela. Hor atara dute, esaterako, CE markatua makinentzat eta honelako neurriak dira gutxienez langileok exijitu beharrekoak.

Bukatzeke esan, gai honetan ere beste askotan bezala, guztion arteko elkar laguntza behar dela gauzak benetan zuzen joateko baina hau esatea, egitea baino errazagoa da.

Iban Retolaza



Egoeraren balorazio bikoitza

Eskualde batetik bestera izugarritzako alde dagoenik ezin ukatu. Garai

batean uste izan neban bizi guztirako "txertoa" eta eskarmentu nahikoa baneukala nonnahi bizitzen jartzeko eta edozein egoerari aurre egiteko. Jakina, ez da hala gertatu.

Duela 20-25 urte egoera guztiz bestelakoak emoten ziran eta Oarsoaldean eta Gipuzkoa barreneko beste eskualdeetan. Pentsa bakarrik zer eragin izan dezaketen hango eta hemengo herrien hazkundera eta abiadurak. Esate batera, Errenteria hamabi bider hazi bazen mendean zehar, Gipuzkoaren hazkunderaren batezbestekoa hiru t'erdikoa zen. Horrek zekarren bizigiro nahaspilatu eta gogorrarekin hangoentzat

Hemen, aldiz, nahiz eta zorioneko globalizazio delakoak denok berdintzera garamatzen, bizigiroa bestelakoa da, hau "beste historia bat", orekatuagoa, lasaiagoa. Ez, ordea, arazorik gabea.

Beraz, gorago esandakoak ez gintuzke konformismora eroan behar. Halere, zorientzekoa da herri honek bere txikian dituen bizitasuna eta ekimen-sena gauzak antolatzeke: industrigintza, hirigintza, kulturgintza eta, oro har, gizarte-bizitza.

Aldi berean aipatu beharrekoa da hemen ere garaiotako gaitza absentismoa eta lankidetzaren eskasia maila guztietan. Jende bakan batek berak diharduela alde gehienetan lanari oratzeko prest. Gehientsuenak lotura gabe eta eroso bizi nahiago dabela. Erreleboko jendea aurkitzea kosta egiten dela ere, ohiko lelo bihurtu da. Eta, noski, "betidanik" dihardutenek erretzeko arriskua dabe eta beraiek uztean esku artean daramaten zeregina ere bertan behera gera daiteke.

Bada beste joera zabalduagorik ere. Adituagoengan eta gogotsuagoengan ardurak laga eta delegatzeko eta, era berean, exijenteago, kritikago eta erreklamatzailago egiteko jarrera.

Jakina, inor ez gara ordezkaturaz edo "inpreszindible", baina nork berea egin gabe uzten duenak hutsik lagako dau bere aortazinoa.

J. L. Aperiiribai

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarrrieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarrrieta, Olaia Jimenez, Maite Mandalu-niz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolaza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Esti Askasibar, Oihana Sarasua eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen Elgeta-
ko Udalaren laguntza
jaso du



Goibeko
k.e.
Tel 943 78 90 85
Salbador 2 Kultur Flakoa
goibeko@topagunea.com



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

Produktu ekologikoak etorkizuneko elikagaia

Hilaren 17an, nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldia izan zen Liburutegian. Hizlaria, Biolurreko kidea den Patxi Montero izan zen eta produktu ekologikoek dituzten hainbat ezaugarriren gaineko hitzaldia izan zen.

Patxi Monterok produktu biologikoak izan zituen mintzagai: "Lehenik eta behin, nutrizio aldetik aberatsagoak direla, mineral gehiago eta bitamina gehiago dituztelako, gainera hondakin gutxiago dituztela eta gehiago irau-

ten dutela".

Hala ere sarri entzuten da produktu ekologikoak garestiakgoan direla. Patxi Monterok ordea ezetz diño, Ez, batzuetan saltzaileak "ekologikoa" izena aprobetxatuz salneurria asko garestitzen du, berarentzat etekin haundiagoa ateratzeko. Batzuetan gertatzen da, eskeintza txikia izanik, eskaria handia denean, kanpotik ekarri beharra, horrela produktua garestituz. Bestalde, produktu hauek egitea gehiago kostatzen da eta kalitatea



18 pertsona inguru batu ziren hitzaldian.

ordaindu egin behar da eta gainera, supermerkatu normaletan dauden sal-

neurriak artifizialki merkeagoak dira, ez dira salneurri normalak.

Azaroak 5ean herritar asko aretoa ikusten

Dagoeneko bukatu dira auditorium berria egokitzeko lanak. Azaroak 5ean Mendi Federazioaren bilera eta gero herritar ugari hurbildu zen aretoa nola geratu den ikustera. Gehienek ez zuten espero

aretoa horren handia eta horrenbeste gelakoa izatea, berogailua piztuta egotea ere eskertu zutelarik. Lokala guztiz egokitzeko lan asko dago egiteko: argiaren instalazio guztia ez dago amaitua,

jartzeko lekuak... Bitartean ordea, Kultura Batzordeak antolatu ditu zenbait ekintza datorren hilabeterako. Goibeko Kultura Elkarteak ere "Espaloia Kafe Antzokia" proiektua aurkeztu zien jakinmina

zuten guztiei, herritar askoren zalantzak argituz. Orain Udaletxeak aretoari zein erabilera eman pentsatu beharko du oraindik erabilera ez dago zehaztuta eta.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari Jendenda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM S.A.

Trokela eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

GRUPO **IFA**

Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

Andoni Bolinaga

METALAK

FS718

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Aspaldiko partez antzerki lan bat Elgetan

Jende ona eta ezaguna ikusteko aukera izango da auditorium berrian.


Udaletxeko Kultura batzordeak, antzerkia antolatu du Abenduaren 16rako. Antzezlanaren Lotsa-Gabe deitzen da eta bertan sexuari buruz hitz egiten da. Antzezleak Jon Calvo, Getari Etxegarai, Miren Ibar-guren, Gorka Otxoa eta Maider Yabar dira. Hauetariko batzuek Goenkalen eta Sorginen Laratzean azaldu izan dira. Antzerkia gaueko 22:00etan hasiko da eta sarerra 500 pta izango da.

Abenduan 23an eta 24an, Elgetako tanborradari buruzko erakusketa antolatuko dute Auditorium berrian eta bertan argazkiak, hainbat herritako jantziak eta bideo

emanaldiak izango dira. Argazki edo bideorenbat erakutsi nahi duenik balego, eraman ditzala Haizea tabernara.

Azarorako hainbat ikastaro antolatu ziren eta horiatariko batzuk ezin izango dira aurrera eraman ikasle gutxik eman dutelako izena. Esku-lanak, Musika, Soinua eta Dantza ikastaroak izango dira, baina euskara, txistu eta buztingintza ikastaroak berriz atzera utzi dira.

Abenduaren 23an Olentzero etorriko da herriko plazara, Elgetako umeen eskutizak jasotzera. Ordurako eskutizak gertatzen hasi beharko dira beraz haurrak.



Antzerki lan honetan telebistatik ezagun egin direnak daude tartean. Lehenengo antzerki lana Kultura batzordearen eskutik.

Olaia Jimenezek Udaletxean zituen ardurak utzi ditu

Honen ondorioz aldaketak egongo dira EH-ren barru antolaketan

Olaia Jimenez, orain arte Gobernu Batzordean Euskal Herritarrok-ek izan duen partaidea, Udaletxean zituen ardurak utzi ditu. Azaroak 16an izandako plenoan, dimisioa onartu ondoren, Sebastian Arantzabalek ardura hauek hartzeko egin

behar diren tramiteak aurrera eramatea onartu zen. Orain Madrilera egin behar da aldaketa hau onartzeko eskaera eta honetarako EH-ko listetan Sebastianen aurretik zeuden denek beraien adostasuna eman behar dute.

Dimisio honen ondorioz EH-k Udaletxean zuen antolaketa aldatuko da. Antolaketa berria guztiz erabakita ez badago ere, Bittor Gallastegi pasako da seguraski Gobernu Batzordeko partaidea izatera eta Sebastian Arantzabalek jaiak anto-

latzeko ardura hartuko du.

Olaiak ez du nahi izan bere dimisioaren arrazoiak publikoki adieraztea eta aurrerago berak jakinaraziko dituela gaineratu dio Goibekokale aldizkariari.



2.001eko ordenantza fiskala onartuta

Tasa, zerga eta prezio publikoetan %3,5eko igoera

Udaletxeak aurtengo zergak zenbatekoak izango diren onartu du. Ondorioz Udaletxearen pean dauden inpostu, tasa eta prezio publikoetan % 3,5eko igoera izango dugu.

Ura, zaborra estolderia eta mantenimendua batzen

dituen atalean igoera %5 izango da. Ibilgai-luen tasari dagokionez ere aldaketak emango dira. Ordaindu beharreko prezioaz gain, aurreko urteetan zegoen sailkapena ere aldatuko da. Horrela geratuko delarik zaldi fiskalaren arabera ordaindu beharreko prezioa:

9 zaldi fiskal baino gutxiago....5.000 pta.
9-12 zaldi fiskal artean.....9.000 pta.
12-14 zaldi fiskal artean.....17.000 pta.
14-16 zaldi fiskal artean.....20.000 pta.
16-20 zaldi fiskal artean.....25.000 pta.

Jaberik gabeko txakurrak herrian

Gaixo egon edo zaharrak diralako uzten dituzte alde batera

Azaro hasieratik pare bat txakur behintzat askotan ikusi ahal izan ditugu herriko kaleetan. Udaletxetik esan digutenez emanda dago iada hauek jasotzeko agindua eta laster jasoko dituzte. Horelako kasuetan Udaletxeak jaso behar izaten ditu txakurrak. Ondoren Ertzainek aparailu baten bidez, identifikazio txipa daukan ikusten dute. Normalean ez dutenez izaten, herritarrei ohar baten bidez gaiaren berri ematen zaie. Inork ez badu hartu nahi, albaiariari dei-tzen zaio indizio baten bidez txakurra hiltzeko.



Azaro hasieratik herrian bueltaka dabilen txakurretako bat

Mahai ingurua Bergaran

Azaroaren 23an, Bergarako Miguel Altuna Institutuan (Elementala) mahai ingurua izango da "Infrastrukturak eta garapena Deba Bailaran" gaiaren inguruan, Lurra taldeak antolatuta. Mahai ingurua arratsaldeko 19:30etan izango da eta bertara gonbidatuak hauek dira besteak beste: Eusko Jaurlaritzako errepide eta garraioetako arduraduna, Gipuzkoako errepide departamentuko arduraduna, Gipuzkoako ingurugiro departametua, EHU, Deba bailarako mankomunitatea, EHNE.

Belen lehiaketa

Maya ingurugiro taldeak antolatuta Hondakinez egindako Belen lehiaketa izango da abenduak 23an. Lehiaketa lehen eta bigarren hezkuntzako haurrei begira antolatu da. Taldeak lau pertsonak osatuak izan beharko dira eta Belenak arratsaldeko 17:00etarako Plazako arkupean aurkeztu beharko dira, kartoizko edo egurrezko bandejatan. Arratsaldeko 17:30etan emango da lehiaketako emaitza eta ondoren sari banaketa eta txokolatada izango dira.

Adinekoentzako doaneko telefono harreta zerbitzua

Zilarrezko zenbakia, adineko pertsonen deiak jasotzeko zenbakia da, eta zerbitzu honen bidez, zenbait adinekok bizi duen bakardade eta isolamendu egoera arintzea da helburua. Ordutegia, astelehenetik ostiralera, 10 etatik 13etara eta 18etatik 20etara izango da. Telefono zenbakia: 900.713.771

Jarri zure iragarkia

Tel:943.78.90.85

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g:

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

M^a Pilar Ormaetxea (75 urte)



Zenbat urte zoiazie taberniakin? Ixa 3 urte.

Egunen baten lan eginda zeukazun tabernan? Ez, sekula. Eta pentsatzen

ziñuan egingo ziñuanik? Ez nitzan sekula imajinauko.

Zer dozu nahixau lan egitteko, ortua ala sukaldia? Ortua nahixau.

Baserrittarran bizimodua tabernarixana baiño zaillagua da? Nik nahixau baserrittarrana, tabernarixana oindio be gogorraua da. Gustauko lejatzuke kale-

ra etortzia bizitzera? Ni konforme nago basarrixan. Zein da bizimodu hobia? Kaletarrana, dirua euki ezker.

Zein da baserriko lanik txarrena? Kortako lanak beti dira gogorrenak.

Aberastu ezker zer egingo ziñuke lehenengo? Danei banatu.

Barran asko ligatzen dala uste dozu? Barrako barri ez dakitt ezer.

Noiz euki dozuz zure azkenengo oporrak? Oingo udan. Nun egon ziñan? Lehenengo, nere illobian bodara jua giñan Bartzelonara, gero Balentziara jua giñan eta bueltan Madrilletik zihar etorri giñan.

Zerek emoten dotsu amorrua? Inbidixiak.

Dendetako jenerua ala baserrikoa? Ona izan ezker, beti baserrikoa nahixau.

Zure bizitzako momenturik polittena? Nere bi illoba bikixak jaio ziran eguna.

Gabonetan diru asko gastatzen dozu? Normal gastatzen dogu, ez asko ez gutxi.

Turroi biguna ala gogorra? Biguna.

Tabernako girua gustatzen jatzu? Bai, neri gustatzen jata.


Aldizkarixa irakurtzen dozu? Bai, beti eta osua.

Gustoko hamarretako bat? Arrautzak eta txorixua patatekin.


Hauxe da lehiaketia ikusiko dozuen azkenenengo eguna. Hemendik aurrera, lehiaketan parte hartu bihar izan ezker Goienkarian eukiko dozue aukeria. Hala eta be azkenengo lehiaketako irabazliai bere sarixa emongo dotsagu. Orainguan karta mordoska bat bialdu dozuez eta Natxo de Felipe zala esan dozuenon artian zozketia egin eta gero bi kamisetok Ane Bilbao Larrañagak eruango dittu.

Kamisetak jasotzera etorri nahi dozunian eta berdin lehendik irabazitta daukazuenok be. Mobidu danak gastau baiño lehen.


Esandako moduan, lehiaketa kontuetan zaletuok zarienok eukiko dozue nun jokatu. Goienkarian telefonoz egin ahal izango da gaiñera.




BARVATU, BERGATIK ZAUDE ORRIATZEAN?



LARRU HUTSEAN NAGOECALCO!




AH..! ZE ONDO NI ERE BAI... NAHI BAURU...



OKER ZABILITZA! ANAIK LARRU BELTZEZ JANTZE! NAU ETA EZ DUT NAHI INORRE IKUSI NAZAN! ACDE HENEU-OIK!!!



Zer pasatzen da Elgetan hainbeste txakur jabe barik agertzeko? Zeiñ da urtenbidia?



(38 urte) Eusebio Keler

Nik ez dakit galdu egitten diran ala jentiaik hemen lagatzen ditudan, nik bakarrik dakit jentiaik hemen lagatzen badituzu bere txakurrak oso gaizki egitten debela. Uste dot soluziño on bat izango zala jentiai honen gainean konzientziatzea, baiña hala be bide zaila da hori. Uste dot daneko arazua dala Elgetan beste beste lekutan be agertuko dirala.

Uste dot txakurren jabiak dirala kulpadun bakarrik. Hobeto pentsau bihar da txakur bat erosi baiño lehen, ez bozu nahi euki ez da hartu bihar. Txakurrendako lekun bat egittia edo behintzat holako lekun batera eruatia izango zan soluzio bakarra.

(52 urte) M^{re} Angeles Muñoz Etxebarria



(25 urte) Oskar Fekalburu

Txakurra erosi bihar dan momentuan uste dot hobeto pentsau bihar dala. Ondo pentsau bihar da txakurra ez dalako 6 hillabete-tarako jolas bat, bizi-modu luzia daka. Uste dot lehenengo txakurrak egoten diran lekun batera eruatia izango zala onena baiña ez badago hil egiñ biharko dittue.



(46 urte) Blanca Etxer Etxebarria

Uste dot pena bat dala txakurrak holan lagatzia, hainbeste terreno egonda txakur leku bat egittia besteik ez dago danen artian. Gaiñera jende askok erosten dittu txakurrak holako lekutan denda baten erosi biharrian. Txakur onak egoten dira holako lekutan be.


Nik behintzat argi dakat hil baiño lehen beste zeozer egiñ biharko zala. Uste dot Udaletxiak hartu eta beste jabe bat topatzen ahaleginddu biharko zala. Jende askok nahi izaten dittu txakurrak.

(25 urte) Mar Moreno



Uste dot arazo honen irtenbidia goititik etorri bihar dala, guk ezin dogu gauza asko egiñ hau konpontzeko. Esan gauza asko esaten dira egiñ leizkezena, baiña lehen esan doten moduan gottik esan bihar doskue.

(74 urte) Jesus Astabiza



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Ilurbe 4-behea Tel: 943 768297

INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibarko *...eta kitto!*, Elgetako *Goibekokale*, Ermuko *Drogeteniturri* eta Soraluzeko *Pil pilean* aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

11.200 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

4. zenbakia. 2000ko azaroa


Publizista: Itziar Albizu. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.

Tirada: 11.200 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 67 76

ETXEAK
zure esku

...eta kitto!
drogeteniturri
goibekokale
pil pilean

AUKERA
INMOBILIARIA

 **API** 208

*Etxebizitza eta lokalen
salerosketa eta alokairua*

Tasazioak

Aholkularitza

*Gipuzkoa osoko eta era
guztietako eraikinen
datu basea zure esku*

Toribio Etxebarria 10, behea
aukera@infonegocio.com

Tel. 943 12 13 95

Faxa. 943 20 06 41

20600 **EIBAR**



IBAI-ONDO Inmobiliaria.
EIBAR

Bidebarrieta 60
Tel. 943 20 12 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Plaza Barria	100 m ² . Dana jantzita.	Galdetu
EIBAR	San Agustin	92 m ² .	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	100 m ² ko etxe bi. Berriak.	Galdetu
EIBAR	Muzategi	75m ² ko etxea terrazarekin. Berria.	Galdetu
EIBAR	Barrena	60 m ² . Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	60 m ² . Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Tiburtzio Anitua	70 m ² . Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Estaziño	100 m ² ko etxe bi. Obrarekin.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	90 m ² . Obrarekin.	Galdetu
EIBAR	Toribio Etxebarria	83 m ² . Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Toribio Etxebarria	125 m ² . Jantzita eta ondo apainduta.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	80 m ² . Obrarekin.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	65 m ² . 27 m ² ko terraza. Berria.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	55 m ² . Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Ibargain	108 m ² . Berria.	Galdetu
EIBAR	San Agustin	92 m ² . Berria.	Galdetu
EIBAR	Errebal	Alokatzeko lokal komertziala. 90 m ²	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	Lokal komertziala salgai. 104 m ² .	Galdetu
EIBAR		Baserri oso ederra salgai.	Galdetu

BASERRIAK, TXALETAK, LOKALAK, TERRENUAK... HERRI ASKOTAN

GARMENDIA Inmobiliaria.
EIBAR

San Juan 7, behea
Tel. 943 20 34 13

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ibarkurutze	4 log., egongela, sukaldea eta komuna. 135 m ² .	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Urki behea	2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	Isasi	70m ² . Egurrezkoa eta berrizteko. Aukera ezinhobea.	Galdetu

TORREVIEJA ETA NOJAN pisuak salgai eta SORALUZEN baserria salgai.

AZKEN PORTU Inmobiliaria. ZARAUTZ


Urdaneta 1
Tel. 943 83 50 00

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ORIO	Herribera	Duplex berria, 3 logela, komun bi, egongela tximiniarekin.	41.500.000
ZARAUTZ	Zentruan	Duplex berria, 4 logela, 3 komun, 2 egongela, sukalde-jangela. Garajea, 2 trastero.	64.000.000
ZARAUTZ	Azken Portu	3 logela, komuna, sukaldea, saloia, trasteroa, bodega.	34.000.000
ZARAUTZ	Araba kalea	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, garajea aukeran.	39.000.000
ZARAUTZ	Vista Alegre	3 logela, bainugela, komuna, sukaldea, egongela. Kalefakzioa.	28.000.000
ZARAUTZ	Lapurdi kalea	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, berria.	49.500.000

LARRAGEST Inmobiliaria. EIBAR

F. Calbeton 22-24
Tel. 943 20 00 12

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Amaña	Sukalde haundia, 2 logela, egongela eta komuna. Balkoi bi.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	Dana kanpora. 2 logela, egongela, sukalde eta komun berriztua. Kamarotea.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	Igogailua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Altzariak.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Dana kanpora. Aukera ona.	Galdetu
EIBAR	F. Calbeton	2 logela, egongela, sukalde eta komun berriztua.	10.500.000
ERMUA		Berrizteko pisua, hormigoizkoa, dana kanpora. Aukera ezinhobea.	Galdetu



ZERBITZU BERRIA: www.inmobolsa.com

Etorri zaitez: Hainbat herritako 12.000 etxe zure esku!

CASA Inmobiliaria. EIBAR

San Juan 11
Tel. 943 20 12 44

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Errebal	3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. Igogailua, kalefakzioa. Ezinhobeto, 105 m ² .	Galdetu
ERMUA	Sallabente	2 logela, egongela, komuna, sukaldea, igogailua, kalefakzioa, ezinhobeto. 60 m ² .	19.000.000
EIBAR	Sostoa	Eskaparate haundidun lokal komertziala alokatzeko.	Galdetu
EIBAR	Tiburtzio Anitua	5 logela, egongela, sukaldea, komun bi. 144m ² .	Galdetu
EIBAR	Fermin Calbeton	Pisua alokairuan. 3 logela, sukaldea, egongela, 3 komun, kalefakzioa, igogailua.	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	2 logela, egongela, sukaldea, komuna.	15.500.000

**...eta kitto!, Drogeteniturri,
Goibekokale eta Pil pilean aldizkarien
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**

JUARISTI Inmobiliaria.


EIBAR

R. JUARISTI API

Arragueta 2-bis B

Tel. 943 20 08 60

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Arragueta	2 eta 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	3 logela, sukaldea/jangela eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Errekatxu	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa.	Galdetu
EIBAR	Txaltxa Zelai	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Amaña	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Tiburtzio Anitua	3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa eta terraza.	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	2 eta 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	4 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Txonta	2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa	4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa.	Galdetu
EIBAR	Plaza Barria	4 logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta despentsa.	Galdetu
EIBAR	San Juan	2 eta 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Estaziño	4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa.	Galdetu
EIBAR	Urkizu	3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Jardiñeta	140 m ² ko DUPLEXa.	Galdetu
BASERRIAK	Aginagan, Elgetan eta Trabakuan.		Galdetu
EIBAR	Zuloagatarren	400 m ² ko lokala.	Galdetu
EIBAR	Ibarkurutze	Taberna edo bestelakorako prestatutako lokala.	Galdetu
EIBAR	Errebal	Alokairu bajuko lokala traspasoan.	Galdetu



**CARLOS VEGA
INMOBILIARIA**

- * Gestio Inmobiliarioa
- * Salerosketa
- * Alokairuak
- * Aseguru orokorrak

San Juan 7, behea
Tel. 943 70 16 57
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



Urkizu pasealekua 11
20600 EIBAR
Tel. 943 12 71 80
943 12 04 37
Faxa. 943 12 71 80

Badator

Eskualde osorako astekaria datorren astean argitaratuko da

Goienkaria!

Datorren barikuan, abenduak 1, komunikabide berria jaioko da: Goienkaria, Debagoieneko lehenengo astekaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartean biltzen diren bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, eskualde osorako egindako astekaria izango da.

Goienak urte honetan bailara osorako bi komunikabide abiatzea zuen helburu. Batetik, Goiena Telebista, gaur egun, oraindik, Leintz aldean bakarrik ikusten dena, eta laster Antzuolara ere zabalduko dena. Bestetik, Goienkaria: Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako etxeetan doan banatuko den egunkari itxurako astekaria. "Gure asmoa Goienkaria lehenago abiatzea zen, baina idatzizko komunikabideen gaineko hausnarketa sakona egin dugu, eta horrek epeak atzeratu egin ditu. Edozelan ere, urte amaieran jaioko den arren, etorkizunean prentsa alorrean egin nahi dugunaren oinarriak finkatu ditugula esango nuke. Uste dut merezi izan duela gauzak ondo egiteko astia hartzea", esan digu Goiena elkartean Zuzendari Nagusi Mikel Irizarrek.

Herrietako eta eskualdeko informazioa

Bailarako tokian tokiko aldizkariak urteak daramatzate informazio lokala

lantzen. Arrasate Press, Aretxagazeta, Berrigara, Ze Barri? (Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Goibekokale (Elgeta), Kontuola (Antzuola) eta Kontzejupetik (Oñati) informazioaren erreferentzia dira, baikoitza bere esparruan. Baina, eskualde osoan banatzen den euskarazko idatzizko komunikabiderik ez dago. Hutsune hori betetzera dator Goienkaria. Horregatik, herri aldizkariaren osagarri izango da: hauek herriko berriak landuko dituzte eta Goienkariak, eskualdekoak. "Herriek egiten dute eskualdea, baina, era berean, eskualdea bera ere bada albiste sortzaile. Bestalde, badira herri guztientzako komunak diren erakunde, elkarte edo zerbitzuak, eta baita denentzako, aretxabaletarrentzako zein oñatiarrentzako, esaterako, interesekoak izan daitezkeen albistak. Horiei eutsi nahi diegu", dio Eneko Azkarate Goienkariako zuzenda-

riak. Eneko bergararra da eta hainbat urtetan Berrigarako zuzendaria izan da.

Zelakoa izango da?

Goienkaria A3 formatukoa izango da, hau da, bailarako herri aldizkariak baino handiagoa, egunkariaren itxurakoa. Prentsa-paperean eta errotatiban inprimituko da. "Inprimatze kostuak askoz ere merkeagoak dira eta horrek egiten du bideragarri proiektua", diosku Mikel Irizarrek.

Goienkariak 24 orrialde izango ditu eta bi zatitan banatuko da: lehenengoan, asteko gai nagusiak, albisteak, elkarrizketak eta kirolak jasoko dira; horiekin batera, iritziak emateko eta eskelentzako tartea ere izango da. Bigarren zatian, Goienka2a izenekoa, kultura, aisialdia, agenda, zerbitzuak, denborapasa eta Goiena Telebistari buruzko informazioa jasoko da, besteak beste. Partikularren iragarki laburrentzat ere izango da orrialde bat. "Agendari eta zerbitzuen informazioari garrantzi handia emango diegu. Bailarakoaz gain, Gasteizeko eta auzo herrietako kultura agenda osatua jaso nahi dugu. Gainontzean, ohiko egun-

**Ostiralero, 20.000
ale inguru banatuko
dira Debagoieneko
herri denetan**



Instalazioak eta mantentze lanak


24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!


Tel: 768078



Goienkaria goizeroko bidian

Beste pauso bat aurrera. karramarruak moduan egittia errezagua dan arren Goiena sortu ostian aurrera egin bihar dogu eta geratzeka. Geratzeka garen seiñale da GOITB eta izango da GOIENKARIA. Goitb ez dogu ikusten ondiokan, baiña pentsatzekua da Udaletxiak laster aurrerbideren bat emotia, penia da eta baillarako barrixak ez ikustia.

Irakurri behintzat irakurri ahal izango dittugu Goienkarixan bittartez. Holaxe jakingo dogu Marujita Diazek zer egitten daben baiño lehenau Bergarako bandako zuzendarixan iritzixa honen eta haren gaiñian. Azkenian, baillarako kontzeptua landuko da eta ezagunaguak egingo dira baikoitzaren herrixan lehendik be ezagunak ziranak. Baillaran, basurak batzeko elkartziaz gain beste kontu askotarako be batu gara eta baillaria herri txikien hiri haundi bihurtuko dogu bai txarrerako eta batez be onerako.



Iban Arantzabal
Goibekokaleko
zuzendaria

kari baten sailak izango ditu", dio Eneko Azkaratek.

Diseinuari dagokionez, "astekari erakargarria eta irakurtzera animatuko duena egin nahi dugu", diosku Goio Arana diseinu arduradunak. Goio Arrasate Pressko diseinatzailea eta maketatzaila izandakoa da urteetan. Orrialde batzuk, azala eta kontrazala, esaterako, koloretan inprimatuko dira. Gainerakoak, tinta bakarrean.

Debagoieneko kazetariak egin

Eskualdeko herri aldizkarietan lanean diharduten edo ibili diren kazetari, komertzial eta maketatzailak egingo dute Goienkaria. Hauek Debagoieneko herri guztietako kolaboratzaileen

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

IBAIBA-
RRIAGA

Tel: 768072
Salvador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
A
S
T
I

San Roke 6
tel: 768168.

laguntza izango dute: iritzi artikulak idazteko, marrazkiak edo ilustrazioak egiteko edota beste hainbat sailtan idazteko. Eneko Azkaratek dioenez, "jende askok egingo du Goienkaria, herri denetako jendeak, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, aldizkaria interesgarriagoa egiteko. Funtzionamendua zaildu egingo du, koordinazio lan handia eskatzen duelako, baina merezi duela uste dut".

Goienkariaren egoitza nagusia Bergaran egongo da, Berrigarako erredakzioaren ondoan, baina Arrasate Press eta Aretxagazetarekin lotuta egongo da, sare informatikoaren bitartez. Etorkizunean, Oñatiko ordezkariak ere lotzea da asmoa. Intranetaren bitartez, artxiboak, informazioa, argazkiak etab. konpartitzeko aukera izango dute ordezkariak.

Astero, zuen eskura

Goienkaria ostiralero banatuko da, doan, Debagoieneko etxeetan. Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten, bertako astekariekin batera. Beste herrietan, bakarrik aldizkaririk ez dagoenean

eta aldizkariekin batera hauek argitaratzen direnean. 20.000 ale inguru banatuko dira. Beraz, ale kopururik handieneko euskarazko astekaria izango da. Herri denetan antolatuko dira banaketa taldeak, herritarrek ostiralero euren etxeko postontzietan jaso ahal izateko.

Iragarleentzako euskarri paregabea

Goienkaria Debagoieneko ia etxe guztietan banatuko dela esan dugu. Beraz, bailarako zein bailaraz kanpoko merkatzaritza-etxe, dendari, enpresa eta abarrentzako euskarri paregabea izango da. Herri aldizkarien finantzaketa biderik nagusietako bat publizitatea da eta Goienkariarekin bide horri eutsi nahi dio Goienak. "Euskarri berri bat eskainiko diegu merkatari, enpresa edota erakundeei; hau da, Debagoienean nagusi izango den komunikabide batean publizitatea egiteko aukera eskainiko zaie. Nor bere herriko aldizkarian egitea nahiago dutenak izango dira, baina bere mezu edo eskaintza eskualde osoko herrietara zabaltzeko interesa

dutenak ere bai. Bakoitzak aukeratuko du", diosku merkatzaritza arloko arduradun Gotzon Arzelus bergararrak.<



Gure eskualdean sei herri aldizkari banatzen dira gaur egun.

Egunkarira bidean

Lau dira Goienaren jarduera-arlo nagusiak: telebista, prentsa, irratia eta zerbitzu telematikoak. Landuen eta garatuen daudenak, telebista eta prentsa dira, nahiz eta egitasmoak bere osotasunean gauzatu barik egon oraindik. Lan-esparrua, ostera, Debagoiena da.

Prentsa arloari dagokionez, hausnarketa prozesu sakon batean murgilduta izan dira aurtien herrietako komunikabide eta euskara elkarteak. Eskualde osorako komunikabide bat abiarazi nahi da, baina herrietakoei eutsiz. Hori dela eta, epe batzuk zehaztu dira bailarako aldizkari denak atekari bihurtzeko. Abenduaren 1ean Goienkaria argitaratuko da eta eskualdeko gainerako herri aldizkariekin batera banatuko da, hauek kaleratzen direnean. Datorren urteko maiatzerako, berriz, gaur egungo herri aldizkariak birmoldatu eta A3 formatura aldatuko dira. Lau edizio lokal sortuko dira: Bergarakoa,

Oñatikoa, Aretxabaletakoa eta Arrasatekoa. Bergarakoan, bertako, Antzuolako eta Elgetako berriak jasoko dira. Oñatikoan bertakoak. Aretxabaletakoan, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaleta bertakoak. Azkenik, Arrasatekoan, Aramaiokoak eta Arrasatekoak. Mantxetei edo aldizkarien izenei eutsiko zaie eta lau edizioak astero argitaratuko dira, Goienkariarekin batera. Beraz, informazio lokala eta eskualdekoa txertatuko dira produktu bakarrean.

Etorkizunean, egunerokoa egitea da Goienaren helburua, baina horretarako bideragarritasun plana egin beharko da: finantzaketa, banaketa, langileak etab. ziurtatu beharko dira. Finantzaketa modu berriak eta eguneroko banaketa zelan egin aztertzeke, bi pertsona hartu dira. Datorren urteko udazkenerako erabaki nahi da egunkarirako urratsa eman edo ez.

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behetxea Baserria. Tel: 860156

Xabier Ubera 22 urtez azpiko Munduko pilota txapelketako binakako azpitzapeldun

Aurreko partida guztiak erraz irabazi ondoren finala galdu zuten Frantziaren aurka

Reunion uhartean jokatu zen Munduko txapelketatik ezin izan zuten urrezko dominarik ekarri Xabierrek. Finala irabazteko faborito nagusiak ziren, eta batez ere aurreko partidak nola irabazi zituzten ikusita. Txapelketako lehen partidua Mundiñano eta Bengoetxeak jokatu zuten Cubaren aurka 22-8 irabaziz. Hurrengo partiduak Xabierrek eta Begino Altsasuarrak jokatu zituzten. Estraineko partiduan, Frantziari 22-7 nagusitu zitzaieñ. Ondoren finalerdietan berriz

Cubari 22-1 irabazi zieten. Finalean Frantziaren aurka neurtu behar izan zituzten indarrak berriz. Lehenago jokatu zuten partiduarekiko Frantziar bikotean aldaketa bat egon zen. Proiekzio handia duen Bonebeltxe jubenila eta Harizmendi izan zituzten aurkari. Frantziarrak 0-5 galtzen hasi ziren arren, markagailuari buelta eman eta 22-15 irabazi zuten.

Orain, DV txapelketa jokatu du Xabierrek Mundialean eskuzbanaka brontzea lortu zuten Martinez de Eulatekin batera. Matienan

jokatuko dute abendua-ren lein Ogara (Galdakao) eta Zapirainen (Azpeitia) aurka.



Xabier, eskubitik hirugarrena Frantziaren aurkako finala jokatu aurreko aurkezpenean

Gabonetako bolo-txapelketako bi tiraldi egin dira Bolatoki tabernan

Luzio Sarasqueta txapelketako lehenengo tiraldiko irabazlea



Momentuz hiru tiralari doaz berdinduta sailkapeneke lehen postuan: Xabier Osoro (San Migel), Mateo Goenaga (Ondarru) eta Jaime Ulazia (Eibar). Pasa den zapatuko tiraldian, Xabier Osorok irabazi zuen 5 txirlo botata, bigarren berdinduta Mateo Goenaga eta Josu Arantzabal 4 txirlorekin, hirugarren Sebastian Arantzabal 3 txirlorekin. Oraindik beste lau tiraldi geratzen dira datozen zapatutan jokatu direnak.


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel

**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Mendi Museoa egiteko lehen harria jarrita

Pako Iriondo ohorezko lehendakari izendatu zuten Mendi federazioko batzarrean

Azaroak 5ean Mendi Federazioaren Batzar Orokorra izan genuen auditorium berrian. Batzar honek 17 urte bete eta gero Pako Iriondok Euskal Herriko Mendi federazioaren lehendakaritzari amaiera eman zitzaion. Pako Mendi federazioaren ohorezko lehendakari izendatu ostean egungo federazioaren balantze bat egin zen: gaur egun 20.153 lizenzia daude (beste edozein kirolean baino gehiago), Federazioaren "Pyrenaica" mendi-aldizkariak arrakasta handia izan du, 200 klubetik gora daude...Hasiera batean Pako Iriondoren ordezkoi lehendakaria aukeratu behar zuten batzar honek. Antxon Bandres biz-

kaitarra izango da erreleboa hartuko duena. Hauteskundeak egiteko plazak bete ez zirela eta egondako inpugnazio bat medio Bandresen izendatzea abendurarte atzeratu da. Hala ere batzarrean

hauteskundeak aurrera nola eraman behar diren zehazteko beharrezko taldeak aukeratu zituzten.

Momentu hunkigarriak izan zituen batzarra. Alde batetik Pako

Iriondoren agurra suposatzen zuelako eta bestetik Iñurrategi Anaiei urrezko insignia eman zitzaielako.

Aipatzekoa izan zen ere bazkarian eta ostean izan zen giroa. "Euskaldun on moduan" bertso batzuk kantatuz eman zizkien eskerrak batu ziren lagun guztiei.



Azken urte hauetan izan den zuzendaritza batzordea batzarra eta gero

Mendi Museoa

Aspaldikoa da bai Federazioak eta bai Udaletxeak Mendi Museoa Elgetan eraikitzeko duten nahia. Proiektuak aurrera egiteko bideak jartzen hasiak dira, Diputazioak dagoeneko milioi bateko laguntza emango du, proiektuaren bideragarritasuna ikertzeko.

Eskola-kiroleko benjaminak eskubaloi finalerako sailkatu dira

Nesken futbol 7-ko taldea ere ondo ari da txapelketan

Nagusitasun osoz lortu dute benjamin mailako hurrek Bergarako Pentecoses jaietan jokatu den eskubaloi finalerako sailkapena. Elgetako hurrek, jokatu eskubaloi-partidu guztietan lortu dute garai-pena. Bigarren doan taldeari aterazen dion aldea nabaria izan da, nabaria izan den moduan partiduetan atera dituzten aldeak. Ia gehienetan 30

goletik gorako aldeaz nagusitu dira. Eskubaloia izan da eskola-kiroleko programan egin beharreko lehendabiziko kirola. Jarraian saskibaloia eta futboelan jardun beharko dira. Bi kirol hauetan ere finalera iritsi ahal izango dira. Txapelketa bakoitzeko irabazleak Gipuzkoako beste ikastetxeetako taldeekin jokatu du. Elgetako taldeak bi edo hiru final

irabazi arren, Gipuzkoa mailan kirol batean bakarrik jardun ahal izango dira. Beraiek erabakiko dute zein kirolean esku hartu. Bitartean denboraldi guztian futbol 7an jardungo den nesken taldea ondo ari da txapelketan eta hauek ere finalera sailkatzeko aukera handia dute.

Etenaldia

Eskola-kirolak urte hasierararte etenaldi izango du oraingoan. Bitartean eta umeak geldi egon ez daitez gabetako txapelketako hurren pilota jaialdia hasiko da jokatzeko ohi den bezala. Lehengo sailkapen partidak jokatu dira eta gero urtero bezala finalak abendu amaieran jokatu dira.



GRISA: ez baltza eta ez zurixa

Grisa epela ei da; nabarmentzen ez dana; baltzuendako posizioño erosua, baiña zenbait egoratan erreflesiñuak eta kaleko jentia --- boloboloka ez bada, kezka haundixakin behintzat --- eskatzen daben posizioña.

Berba haundixak, eta askotan esangura gutxiuak hasi jakuz sartzen gure belarrietatik: *lurraldetasuna, euskal abertzaliak, abertzale espainiolak burujabetzia, ...* Izenak izana euki bihar dau eta ez da hori izenori abstraktua izan bihar. *Lurraldetasun* berbia, esaterako, ez ei da agertzen Euskaltzaindiaren Hiztegi Orokorrian. Zer esan gura dau *lurraldetasunak*? Adur erretatik Ebroraiño dagan lur

zatixa eskatzia eta hor mugak ezartzia? Eta hor bittartian dagan errealdade sozio-politikua? Iparraldian Jean Louis Davantek diño, bera abertzalia, abertzalien botuak %10-12 direla, eta aurrez egitteko biharrak badagozela; Nafarruan %22xa dira horrek botuok; Baskongadetan %51 eta horrek erresultauok, gutxienez Hegoaldian, bestelako egoera politiko batian emondakuak.

Lurraldetasuna eta estrategia nazionalaren izenian Eusko Legebiltzarrera joatari laga egiñ jako; eta arrazoieta-ko bat izan da, Parlaméntua herrixaren lurralde zatiketaren espilua dala. Eta Nafarruako Parlaméntua? Eta Diputazioak? Eta Iparraldian dagoen erakundiak?


Nik neuk behintzat ez dot ulertzen hori estrategixiori. Justifikau

dana justifikau leike eta arrazioekin gaiñera, baiña nik ikusten dotena da aurreko trintxeran dagozeneri emon jakuela maiorixia, gehixengua, eta eskuak libre laga abertzaliak gehixengua izan da; eta aurreko trintxeran dagozenak frankotiradoriak dira, eta emondako aukerekin ez dabela parkatzen, eta hasi direla lehenengo batalliakin, eta kasualidadia euskeria da. Hasi dira AEKri emoten jakon diruagaittik kontuak eskatzen; hezkuntzan euskarazko ereduak, "D" eta "B" ereduak, zalantzan jartzen, erakusten dana kalidade txarrekoa dalako; Administrazioñuan, Udaletxietan eta Eusko Jaurlaritzan bestiak beste, funtzionari-xuei eskatzen jakuen euskera maillia larregikua dala, eta holako lekuetan biharra egitteko aukerak urrittu egitten dirala (ez dakitt noiz konturako

diran lan-merkauan zenbat eta preparaua egon estimaziño haundixagua eukitzen dabela jentia). Aurreko trintxerakuak badakixe hizkuntzaren normalizaziño prozesuetan oinarri dirala hezkuntzia eta administrazioña euskalduntzia, eta zer aurrerapide emon dan hor esparruetan, eta zer dakarren horrek.

Esan neike, orduan, hizkuntza plangintziona ondorixo batzuk izan dittuala. Ez da ez plangintza nazional bat, baiña oiñ aukerarik badago ala? Baietz esango leuke batek baiño gehixauk: marko juridiko-politikua aldatuta. Eta ordura arte? Naparruan eta Iparraldian gertatzen daguena Araban, esaterako, gertatu deixela? Eta hurrenguan?

Alberto Telleria



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Euskal Jaixa egitten zanakua

Aurreko aleko argazki zaharrian herriko dantzariak atara ginuzen. Dantzekin daka zer ikusixa honek argazkixonek be. Oin dala hamalau bat urte Elgetan izandako euskal jaixan atara zeban hau argazkixau Juakiñek. Gure herrixan jai hau galduta egon arren herriko dantzariak egitten dittue erakusataldixak, iaz jaixetan Ermuako dantzariak be etorri ziran. Ikusi leiken moduan argazkixan edade askotako gaztetxuak agertzen dira. Kostau jakuen dantzako irakaslei danak formal formal eta geldi ifintzia.

Argazkixak beti izaten dira momentuak gogoratzeko. Argazki honek erakusten dosku Elgetan euskal jaixak euki zeban garrantzixa. Antolaketan be jende askok hartzen zaban parte eta orduko ahalegiñak gaur be zoriontekuak dira. Dantza talde desberdinak ekarri, dantzari danei etxiak bilau bazkaltzeko...egun politta izaten zan. Izango ete da berriro holakoik?

Goiko hillaran: Itziar Olabe, Goizane, Nerea, Eva, Sonia, Edurne, Ana, Rebeka, Irune, Leire, Aintzane, Lierni, Agurtzane, Natalia, Celia eta Jone.

Bigarren hillaran: Susana Jimenez, Esti, Aitor, Iban, Mikel, Koldo, Nuria, Olaia, Jaione, Ibane, Nerea eta Iker.

Honen azpizian eta erdikaldian: Onditz, Eider, Alazne, Maitane, Maite, Ana, Eneida, Leire, Ainhoa, Iban, Xabat eta Asier.

Hirugarren hillaran: Idoia Ubera, Izaro, Ainhoa, Laura, Nagore, Unai, Alex, Haritz, Mikel, Iskandar, Oskar, Sergio, Haritz, Etor, Igor, Aitor eta Gorka Bolinaga.

Azpiko hillaran: Joseba, Edu, Aitziber, Ander eta Iñigo.

Laugarren hillaran: Jesus Mari Gallastegi, Iban, Josune, Hiart, Onditz, Oxel, Gorka, Nerea, Eneko, Iraultza, Eñaut, Unai, Maite, Idurre, Eider, Sonia eta Iratxe.

Beko hillaran: Saioa, Alaitz, Itsaso, Leire, Ainara, Saioa, Iraitz, Ainhoa, Koldo, Aitzol, Oskar, Argoitz, Alaine, Zuhaitz, Alain, Garikoitz, Ibai eta Xabier.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan

Abenduaren 1etik aurrera,



zure eskura.



DEBAGOIENENKO ASTEKARI BERRIA

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak